

KORONABIRUSAK

SORTUTAKO KRISIAREN AURREAN

GUZTION ARTEAN ELKARTASUN SARE ANTOLATUA



Zure txakurra paseatzea nahi al duzu?

Zaborra jaitsi diezazuket?

Zer behar duzu Hemen nago zuri laguntzeko?

Joango al naiz farmazilara zure botiketan bizi?

Izapide atzeraezin batean lagunduko dizut?

GUZTION ARTEAN ELKARTASUN sare ANTOLATUA da, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren gidaritzapean, erakundeekin, Gurutze Gorriarekin, Caritasekin eta Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeekin lankidetzan.

Sarea herritarren erantzun solidarioa bideratzeko tresna da, eta, modu boluntarioan, etxetik atera ezin diren pertsona asintomatikoak lagundu nahi die haien babesa bermatzeko: 70 urtetik gorako pertsonak edota mendekoak, edo beste egoera kaltebetearen daudenei (azken horiek administrazioak bideratutakoak).

GUZTION ARTEAN LORTUKO DUGU!

70 urtetik gorakoa bazara eta/edo mendekoa, sintomarik ez baduzu (sukarra edo arnas sintomak, bereziki eztl lehorra edo arnasa hartzeko zailtasuna), familiaren laguntzarik ez baduzu eta laguntza behar baduzu:

- Premia biziko hornidurak eskuratzeko (elikagaiak, higiene- eta garbiketa-produktuak eta premia biziko beste hornidura batzuk).
- Zaborra jaisteko.
- Osasun-txartel Indibidualean agindutako sendagaiak jasotzeko.
- Zure maskotaz arduratzeko (paseatzera atera, larrialdiko albatari-arreta).
- Atzeratu ezin diren izapide eta kudeaketak egiteko.



Deitu **945 222 222** telefonora (24 ordu).

Krisi-egoerak irauten duen bitartean, eta, bereziki, etxean geratzeko gomendioak irauten duen bitartean, honako hauen laguntza emango dizugu: **boluntario bat edo, salbuespenezko kasuetan, bi** (beti berberak); 17 urtetik gorakoak eta 65 urtetik beherakoak; sintomarik gabekoak eta beren burua kaltebera bihurtzen duen patologia kronikorik gabekoak; zure etxera ohikotasunez joango dira (beharren arabera); haiek babesteko eta zu babesteko beharrezko neurriak hartuko ditugu, **Osasun Sailak ezarritako jarraibideekin** eta sarean parte hartzen duen erakunde edo instituzio baten babespean. **Berre gutziekin.**

Gainera, zurekin telefonoz harremanetan egongo gara.

Lagundu nahi eta laguntza eskain dezakeen pertsona bazara, eta parte hartzeko baldintzak betetzen badituzu, deitu **945 222 222** telefonora (Gurutze Gorria) edozein unetan (24 ordu). Edo jarri harremanetan Caritasekin (688 662 773)

Aseguru baten estaldura izango duzu eta laguntza-sareko erakundeek lagunduko eta orientatuko zaituzte, laguntzen dituzun pertsonak zaintzeko eta zeure burua zaintzeko. **Berre gutziekin.**

Guztion osasuna zaintzeak mugimenduak mugatzea eskatzen du eta, horregatik, soilik behar-beharrezkoak diren zerbitzuak egitea. Artatutako pertsonen osasuna zaintzeak etxe bakoitzean arreta ematen duten boluntarioen kopurua murriztea ere eskatzen du.

PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Adina: 17 urtetik gora eta 65 urtetik behera izatea.

Prestasuna: nahikoa datorren hilabetean (gutxienez bi edo hiru ordu, astean bi edo hiru egun), pertsona batek edo, salbuespeneko kasuetan, bik (ez gehiagok) etxe bat zaindu ahal izateko.

Osasun-egoera: sukarrak edo arnas sintomarik ez duten pertsonak, bereziki eztl lehorra edo arnasa hartzeko zailtasuna. Esku-hartze bakoitzaren aurretik tenperatura hartze bat egingo da, eta ezingo da 37 gradutik gorakoa izan.

Patologia kronikorik gabe: diabetesa, kardiopatiak, arnas gutxiegitasuna, immunogutxitzaileekin tratamenduan egotea, etab.

Gaikuntza: herritar guztientzako gomendioak irakurtzea eta ikustea, baita etxeko laguntzarako boluntarioentzako jarraibide espezifikoak ere, Osasun Sailak ezarritakoak.

Certutasuna: bere bizilekuak artatutako pertsonen bizilekutik hurbil egon behar du (auzo berean edo ondoko auzoetan, udalerrri berekoak edo mugakideak).

Erakundearekiko lotura: erakundearekiko etengabeko harremana, haren jarraibideei erantzutea eta ekintza bakoitzaren gauzatzearen berri ematea, eta, hala badagokio, antzemandako egoera edo beharrak jakinaraztea.

Boluntariotzaren arloko araudia betetzea eta, bereziki, bermatzea pertsona horiek uneoro erakundeek kontratatutako Erantzukizun Zibileko eta Istripuetako aseguruaren estaldura izango dutela.